

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5082

*1906/2022 EBAZPENA, urriaren 31koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Josu Gotzon Irurzun Zuazabal jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko Etxeko Ospitalizazioko Atal Sanitarioko buru (Kronikotasun Aurreratua eta Zainketa Aringarriak) izendatzen den aldi baterako, lau urte luzagarritz.*

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentearen martxoaren 24ko 549/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Etxeko Ospitalizazioko Atal Sanitarioko buru (Kronikotasun Aurreratua eta Zainketa Aringarriak) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 21eko EHAA 141 zk. eta 2022ko abuztuaren 2ko BOE 184 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Josu Gotzon Irurzun Zuazabal jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Etxeko Ospitalizazioko Atal Sanitarioko buru (Kronikotasun Aurreratua eta Zainketa Aringarriak).

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Josu Gotzon Irurzun Zuazabal jauna Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Etxeko Ospitalizazioko Atal Sanitarioko buru (Kronikotasun Aurreratua eta Zainketa Aringarriak) izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta 2022ko azaroaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela, eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunei eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Zuzendaritzari.

2022ko azaroaren 24a, osteguna

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osa-  
kidetzako Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da. Ebazpena EHAA  
argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2022ko urriaren 31.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentea,  
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.